

EGURALDIA. Ribaforadan dike bat apurtu, eta ibaiak gainezka egin zuen Buñuelen; 40 etxe hustu behar izan zituzten

Tutera eta Buñuel, Ebrok jota

Egoerak hobera egin zuen Castejonen atzo; Tuteran, berriz, uraren mailak gora eta gora egin zuen egun osoan



JON DIMIS / EFE

ERRESKATE TALDEAK. Etxeetan harrapatuta geratu zen jendea ateratzeko, txalupak erabili zituzten erreskate taldeek Tuteran.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

ALDE ZAHARRA UREZ GAINEZKA. Tuterako alde zaharrean sartu zen ur gehien. Ura garaje, atari eta lokaletan sartu zen, eta hainbat herritar atera ezinik geratu ziren. Klean zeudenak, berriz, kontu handiz ibili ziren etengabe ura zeramaten kaleetan.

Agoizko Udalak ez du onartu urtegiaren segurtasunari buruzko auzokideen mozioa

E. Elizondo | IRUÑEA

Agoizko Udalak ez du onartu Itoitzek Kaltetutako Auzokideen Batzorde Iraunkorrek aurkezturiko urtegiaren segurtasunari buruzko proposamena. Ezohiko batzarra egin

zuen Udalak, atzo, afera eztabaidatzeko. Alkatetza duen taldeko bost zinegotziek, Agoizko Talde Independentekoek alegia, proposamenaren aurkako boza eman zuten; Batasuneko lau zinegotziek, berriz, aldekoa. Udaletxean bil-

du ziren auzokideek euren haserrea agertu zuten.

Auzokideen Batzordeak hiru eskaera zehatz egin zituen bere proposamenean; betetze probak bertan behera gera daitezela, herritarren segurtasuna berma dezatela eta Udalak segurtasunari buruz txosten independentea ordain dezala.

«Duela urtebete segurtasunari buruzko txostena eskatzeko konpromisoa hartu

zuen Udalak, baina egin duen gauza bakarra izan da Ebroko Ur Konfederazioak errandakoa ontzat ematea», salatu zuen Auzokideen Batzordeak.

Bestalde, Nafarroako Gobernuako Herrilan kontseilari Jose Ignacio Palaciosen «Esa eta Itoizko urtegiak uholdeak kontrolatzen lagundu» dutela erran zuen atzo. «Argi dago Itoizko urtegia egiteko erabakia zuzena izan zela», gaineratu zuen Palaciosen.

Eduñe Elizondo | TUTERA

Atsedetik gabeko eguna izan zen atzo Nafarroako Erriberako herrietan. Gaua beilan eman zuten agintariek eta herritar askok, eta, atzoko eguna, Ebro ibaiari so. Egoerak, ordea, pixkanaka-pixkanaka, hobera egin zuen —lehenago toki batzuetan bestetan baino—, eta, Nafarroako Gobernuak «kontrolatuztat» eman zituen uholdeak.

Castejonen, Tuteran eta Buñuelen jo dute uholdeek gogorren. Castejonen egoerak hobera egin zuen atzo. Tuteran arriskuak bere horretan jarraitu zuen, eta, arratsaldean, Buñuel izan zen herririk kaltetuen, Ribaforadan zegoen dike apurtu ondoren. Inguruko zelaietan gainezka egin zuen urak, eta ibaitik gertu diren 40 etxebizitza hustu behar izan zituzten, segurtasuna bermatzeko.

Egoera bere horretara itzuli arte hainbat egun igaro beharko dira. Tuteran, adibidez, larunbata bitarte egonen dira adi babes zibileko kideak. Ura betiko bidera itzuli beharko dute, bate-tik; eta, bestetik, uholdeak eragindako kalteak neurtu eta konpondu beharko dituzte. Kalteak zenbatekoak izan diren zenbatzeko hainbat egun igaro beharko direla erran dute Erriberako alkateek.

Tuteran, maila gorenaren zain

Castejonen ura ez zen herriraino ailegatu, baina ibai bazterreko zelaietan eta inguruko hainbat etxaldetan gainezka egin zuen ibaiak. A-15 autobidea ere, ixtekotan egon ziren atzo goizaldean, errepideraino ailegatu baitzen ura.

«Gaueko 21:00etatik goizaldeko 05:00 arte etengabe igo zen ura; autobideko langile gehienak Valtierra-ko zerbiztu gunean aritu ziren lanean, ibaiari so. Zentimetro gutxi batzuegatik ez genuen itxi behar izan, egoera latza izan zen», azaldu zigun autobideko langile Rafael Jimenezek.

Castejonerako eta Valtierra-ko autobideko sarrera itxi behar izan zuten, eta hala jarraitzen zuen atzo, urak hartuta. Castejonen atzo goizaldean izan zuten unerik larriena, baina, Tuteran, ordea, igoerarik handienaren zain ziren oraindik atzo goizean. «Gauerako espero genuen unerik latzena, baina ura oraindik gora doa», azaldu zuten Tuterako Udaltzaingotik.